

Iñaki Petzarroman

2011n jarri zuten martxan Harlingengo erraustegia, Herbehereetan. «Punta-puntako teknologia-koa» zen, agintarien esanetan. Enpresak egindako kontroletan –urtean bi egunetan–, behin bakarrik gairatutako zuen ezarritako kutsadura muga. Toxico Watch fundazioa beste lagin batzuk hartzen hasi zen, epe luzeagoan eta ia etenik gabe –urtean 20.139 orduz–, eta beste datu batzuk aurkitu zituen: inguruko arrautza, belar eta lurrak PCB eta PBDD dioxinaz eta furanoz kutsatuta zeuden. Geroztik, Frisiako Gobernuaren babesarekin egin dituzte ikerlanak. Abel Arkenbout aritu da horietan. Hernanin (Gipuzkoa) izango da bihar, euren lana azaltzeko.

Harlingengo plantatik bi kilometroa neuritutako belar eta arrautzetan dioxina eta furano kutsadura handia topatu duzue. Zer diote agintariak?

Erakutsi dugu erraustegiaren inguruko belaze eta arrautzetan legeak ezarritako dioxina maila erruz gairatuta dela. Frogatu dugu, gainera, dioxina horiek erraustegiko labeetatik ateratzen diren berak direla. Plantaren inguruko eztabaida politikoa eta juridikoa asko izan dira, eta bozetan ere presente dago gaia; alde bateko zein bestekoen jarrerak murtitzen ditu. Irakurri berri dut gure udal gobernuaren podcast bat gai honetaz, eta tristura handia ematen dit ikusteak alde handia dagoela zientziak eta arauetara tenaren artean. Ezjakintasun horren ondorioz, industria programa politikoa guztiak baldintzatzen ari da.

Eta zer diote erraustegiaren arduradunek?

Enpresak ondorio okerrak atera ditu neurketen inguruan. Erraustegiari erreparatuta, kontu asko daude hobetzeko. Egungo hondakinak nahasketa kimiko konplexuak dira, eta arazo handiak ematen dituzte guztiz suntsitzeko. Berez, desagerrarazi beharrean, nahi ez diren bestelako osagai arriskutsuak sortzen dituzte errausterakoan; esaterako, dioxinak.

Zergatik hasi zineten laginak hartzen erraustegiaren inguruko etxaldeetan?

Toxico Watchek dioxina maila handiak topatu zituen arrautzetan, eta horrek arreta handia piztu zuen hedabideetan. Hasieran, jakina, erraustegiak ukatu egin zuten bera zela kutsaduraren sortzailea, eta orduan galdera hau egin genuen: errekontzua ondo badago, zergatik ez duzue erakutsi



«Dioxina kutsadura etengabe neurtu behar da fidagarria izateko»

Abel Arkenbout • Toxico Watch fundazioko toxikologoa

Herbehereetako erraustegi berrienaren kutsadura aztertzen aritu dira hainbat zientzialari. Haien analisiek kolokan jarri dute enpresen datuen fidagarritasuna, baita darabilten prozedura ere.

nahi erraustegia ez dela kutsaduraren eragilea? Galdera horri esker, aukera izan genuen gobernuarekin eta enpresaren arduradunekin batera lantalde teknikoetan jarduteko.

Konpainiaren neurketa puntualetan, kutsadura apala zen, baina, kontrolak modu iraunkorrean egin ahala, emaitzak aldatu egin ziren. Zergatik?

Plantaren urteko jardueraren %0,1 neurtzea oso adibide ona da ikusteko nola lehenesten diren oinarri zientifikorik gabeko kontrolak. Ausaz egindako neurketen kalitatea oso eskasa da, eta, gainera, kontrolak noiz egingo diren ere aurretik jakiten du enpresak. Horren ondorioz, neurriak hartzen ditu, eta epe jakin horietan ez

ditu erretzen hondakin konplexu eta arriskutsuak.

Jabetu zarete kutsadura handia izaten dela labeak martxan jartzetakoan. Ezin dira kontrolatu abiatze horiek?

Kontu teknikoak da, eta konpon daiteke, baina prezio bat dauka. Errekontzua prozesuaren urrats teknikoetara erreparratzen bazaie, pauso batzuk ez dituzten betetzen, kostu ekonomikoengatik. Adibidez, iragazkiak ez jartzea da dirua aurrezteko sarritan erabiltzen duten trikimailu bat. Bestalde, eta hori ere ikuspegi tekniko batetik, erretzeko linea bat baino gehiago eduki behar dira martxan, geraldiki saihes-teko. Azkenik, ez lukete inoiz huts egin behar. Aztertu ditugun

huts egite guztiak eragotzi zitezkeen.

Matxura edo ezohiko gertakari horiek oso kutsatzaileak izaten dira. Sarritan izaten al dira?

Ikerketetan ikusi dugu sarritan gertatzen direla, ofizialki urtean bostetan baino gehiagotan. Epe luzeak datuak xehekiago begiratu gero, askoz ere arazo gehiago izaten direla ikus daiteke. Arazoa izaten dira azido klorhidrikoarekin, korrosioarekin, kedarrarekin, hautsarekin, erraustu hegalariekin eta beste hainbat gauzarekin. Ezinezkoa da hondakinak erabat desagertzea. Hondakinak erraustea arazo handi bat da oraindik ere.

Dioxinak, toxikoak eta arriskuak izateaz gainera, ez dira de-

sagertzen eta pilotuz joaten dira. Zein da irtenbidea?

Hasteko eta behin, halakorik ez sortzea. Eta horrek esan nahi du errausketak akasgabea izan behar duela. Herbehereetako erraustegi modernoak bakarrrik ikertu ditut, eskura dauden teknikarik onenak (BAT) eta ingurumen jarduerarik onenak (BEP) aintzat hartuta. Stockholmgo Itunak erraustearen ondorenerako ezarritako aire kutsaduraren eta tenperaturen kontrol irizpideak oinarri hartu ditugu, eta ikusi dugu haiek ez direla betetzen ari Herbehereetan.

Zergatik uste duzu beharrezkoak direla ikerketa independenteak?

Ikerketa zientifikoa independenteak guztiz beharrezkoak dira, eta ez dira batere errazak izaten lortzeko. Horregatik, Toxico Watchen hauxe egiten dugu: harremanak bideratu, batzordeetan parte hartu, eta gure ikerketen emaitzak nazioarteko parame-trotara egokituz.

Zubietako erraustegiaren kasuan, agintariak diote teknologiarik aurreratuen izango direla, eta, beraz, dioxina eta furanoen isurketak oso txikiak izango direla. Sinesgarria da?

Antzeko gauzak entzun izan ditugu hemen ere. Harlingengo erraustegia aurkeztu zutenean, esan zuten Europako mendealdekoko onena zela, *state of the art* mailakoa. Hau da, enpresari eman zion kutsadura muga legezkoa baino hamar aldiz txikiagoa zen, baina kontua da neurketak zuzen egin behar direla. Hau da, aurrez iragarritako 6-8 orduko neurketak ez dira onargarriak isurketen berri jakiteko. Fidagarria izateko, dioxina kutsadura etengabe eta epe luzean neurtu behar da, eta ez bertan behera utzi matxurak eta geraldiki izaten direnean.

Egin dituzue neurketak Harlingenen ez ezik beste erraustegiaren batean ere? Zer nolako emaitzak izan dituzue?

Eskura izan ditugu beste erraustegiz batzuetako datuak; esaterako, Belgikako batzuetakoak. Arazoa da neurketak eten dituztela matxurak, geraldiki eta berrabiatzeak izan direnean. Eta guztiz beharrezkoa da neurketak ez etetea, erraustegi berrietan matxurak daudenean izaten diren dioxina isurketak oso handiak baitira, eta arau ofizialen menpe egon behar baitute. Itzali-piztu horietako batean, 5-10 miligramo dioxina isurketak oso handiak baitira, eta arau ofizialen menpe egon behar baitute. Itzali-piztu horietako batean, 5-10 miligramo dioxina isurketak oso handiak baitira, eta arau ofizialen menpe egon behar baitute. Itzali-piztu horietako batean, 5-10 miligramo dioxina isurketak oso handiak baitira, eta arau ofizialen menpe egon behar baitute. Hau da, erraz gaindi dezake urte osorako baimenduta duen 5 miligramoren muga.